

EAE TXOSTENA **2020**

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA **sormen- sektoreetan**



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EAE TXOSTENA **2020**

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA **sormen- sektoreetan**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa
aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 2022ko azaroan

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastian 1, Vitoria-Gasteiz 01010

Koordinazio teknikoa: ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana: SIADECO, S.COOP.

Itzultzailea: LETE Itzulpenak-traduccionen, SL

Diseinua eta maketazioa: EPS Comunicación

ISBN: 978-84-457-3680-7

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Edukien aurkibidea

Aurkezpena	9
A. METODOLOGIA.....	10
A.1 Fitxa teknikoa.....	11
A.2 Azterlanaren behaketa-eremua.....	12
A.2.1. Laginketa-sistema	12
B. SORMEN-SEKTOREETAN LIKIDATUTAKO GASTUA.....	13
B.1 Sormen-sektorearen arabera likidatutako gastua.....	14
B.2 Sormen-sektoreetan likidatutako gastua, administrazio-mailen arabera	16
B.3 Gastuaren pisu erlatiboa sormen-sektoreetan.....	22
B.4 Biztanleko gastua sormen-sektoreetan.....	24
B.5 Sormen sektoreetan likidatutako gastuaren sailkapena	27
C. SORMEN-SEKTOREETAN KONTOLIDATUTAKO GASTUA.....	35
C.1 Kontsolidazioa helmugan eta transferentzia-fluxuak administrazio-mailen arabera.....	36
C.2 Gastu kontsolidatua sormen-sektoreen arabera.....	37
C.3 Administrazio-mailen arabera kontsolidatutako gastua.....	39
C.4 Gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren arabera.....	42
C.5 Sormen-sektoreetan kontsolidatutako gastua biztanleko	44
D. DIRU-SARRERAK SORMEN-SEKTOREETAN	46
E. ENPLEGUA SORMEN-SEKTOREETAN.....	50
F. ERANSKINAK.....	54
A. Azterlanean parte hartzen duten entitateen zerrenda	55
B. Sormen-sektoreen arabera likidatutako gastua (€).....	55

C.	Datuen estrapolazioa	56
D.	Aztertutako kontzeptuak	57
	D.1.1. Gastuaren izaera ekonomikoa sormen-sektoreetan	57
	D.1.2. Gastuaren zertarakoa: sormen-sektoreen deskribapena.....	58
	D.1.3. Sormen-sektoreetako diru-sarrerak	59
	D.1.4. Enplegua sormen-sektoreetan	59
E.	Gastuaren kontsolidazioa	60

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua (€).....	14
2. grafikoa. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera (€).....	16
3. grafikoa. EAEko udalek sormen-sektoreetarako bideratutako gastua, populazio-habitataren arabera (%).	19
4. grafikoa. EAEko udalek sormen-sektoreetarako bideratutako gastua, lurralde historikoaren arabera (%).	20
5. grafikoa. Sormen-sektore bakoitzean egindako transferentziak administrazio-maila bakoitzeko (%).	37
6. grafikoa. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua (€).....	38
7. grafikoa. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua (%).	40
8. grafikoa. Sormen-sektorearen araberrako enplegua.....	51
9. grafikoa. Generoaren eta sormen-sektorearen enplegua (%).	53

Taulen zerrenda

1. taula.	Azterlanaren xede den unibertso eta lagin-hedapeneko ratioak.....	12
2. taula.	Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua (€).....	15
3. taula.	Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera.....	17
4. taula.	EAEko udalek sormen-sektoreetarako bideratutako gastua, populazio-habitataren arabera.....	19
5. taula.	EAEko udalek sormen-sektoreetara bideratutako gastua, lurralde historikoaren arabera.....	20
6. taula.	Sormen-sektore bakoitzaren pisu erlatiboa, administrazio-mailen arabera (%).	22
7. taula.	Sormen-sektore bakoitzaren pisu erlatiboa EAEko udaletan, populazio-habitataren arabera (%).	23
8. taula.	Sormen-sektore bakoitzeko pisu erlatiboa, lurralde historiakoaren arabera (%).	23
9. taula.	Sormen-sektore bakoitzera bideratutako biztanleko gastua.	24
10. taula.	Sormen-sektore bakoitzera biztanleko bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera (€/biz).	25
11. taula.	EAEko udalek sormen-sektoreetarako biztanleko bideratutako gastua, populazio-habitataren arabera.....	25
12. taula.	Sormen-sektore bakoitzera biztanleko bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera (€/biz).	26
13. taula.	Sormen-gastu bakoitzera bideratutako gastua, esparru ekonomikoaren arabera.....	27
14. taula.	Eusko Jaurlaritzak sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.....	29
15. taula.	Foru-aldundiek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.....	31
16. taula.	Udalek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.....	32
17. taula.	Erakunde autonomoek eta erakunde publikoek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.....	34

18. taula.	Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua (€).....	38
19. taula.	Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua, administrazio-mailen arabera.....	41
20. taula.	EAEko Administrazio publiko osoak sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera.....	42
21. taula.	Sormen-sektore bakoitzera bideratutako biztanleko gastu kontsolidatua.....	44
22. taula.	Sormen-sektore bakoitzera biztanleko bideratutako gastu kontsolidatua, administrazio-mailen arabera (€/biz).....	45
23. taula.	Sormen-sektorearen arabera diru-sarrerak.....	47
24. taula.	Sormen-sektorearen eta administrazio-mailen arabera diru- sarrerak (€).	47
25. taula.	Sormen-sektorearen eta kapitulu ekonomikoaren arabera diru- sarrerak.....	48
26. taula.	Sormen-sektorearen eta udalen populazio-habitataren arabera diru-sarrerak (€).....	49
27. taula.	Sormen-sektorearen eta -azpisektorearen arabera enplegua.....	51
29. taula.	Generoaren eta sormen-sektorearen arabera enplegua.....	53

Aurkezpena

Estatistika honen helburua da sormen-sektoreetarako aurrekontu publikoei buruz informazioa ematea, baita erakunde publikoek sormen-sektore horietan sortzen duten enpleguari buruzkoa ere. Euskadiko Autonomia Erkidegoan horrelako azterketa bat egiten den lehen aldia da hau. 2019-2022 aldiko Estatistikaren Euskal Planean barne hartuta dago eragiketa hori eta 2020ko EAeko kulturako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistikarekin batera jarri da martxan (estatistikaren zazpigarren edizioa). Bi eragiketen artean 2020ko EAeko kultura- eta sormen-sektoreetako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika gauzatuko da.

Kultura-sektoreei dagokienez egiten den azterlanarekin gertatzen den bezala, Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Behatokiak sustatu du azterlana.

EAeko Administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak) sormen-sektoreetan egiten duten ekarpen ekonomikoa, eta sustapen- eta inbertsio-politikak zein diren jakitea da eragiketa honen helburua.

Ondoren, burututako lanaren emaitzek aurkezten duten egitura zehazten da, lanak honako atal hauek dituelarik:

- A Azterlanaren metodologia
- B Sormen-sektoreetan likidatutako gastua
- C Sormen-sektoreetan kontsolidatutako gastua
- D Diru-sarrerak sormen-sektoreetan
- E Enplegua sormen-sektoreetan



METODOLOGIA

A.1 Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena

Finantzaketaren eta gastu publikoen estatistika sormen-sektoreetan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Aztertutako gaia

EAEko Administrazio publikoko eta haren mendeko erakunde autonomoetako, sozietate publikoetako eta fundazioetako sormen-sektoreentzako aurrekontu publikoa.

Eragiketaren estatusa

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak garatua. EUSTATEk ofizialdua

Aldizkakotasun

Bi urtean behin

Informazio-erreferentziaren urtea

2020

Informazioa noiz bildu den

2021eko iraila – 2022ko apirila

Informazioa biltzea

Informazioa zuzenean jaso da fitxa egituratuaren bidez (euskarri informatikoan eta paperezko euskarrian) hainbat entitatetan: Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, erakunde autonomoak eta sozietate publikoak. Aholkularitza eta laguntza espezifikoak ere eskaini dira, entitate bakoitzeko informatzaileen ezaugarrietara eta beharretara egokitua, teknika sorta baten bidez.

A.2 Azterlanaren behaketa-eremua

Honako hauek dira estatistika honen zundaketa-oinarriaren osagaiak:

- ◆ Zentsu bidezko landa-lan bat, **Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udal** guztiak (72 udal) barne hartzen dituena. Azterketaren xedeetarako, estratifikazio bat egin da, 5.000-20.000 biztanleko udalak, 20.000 biztanletik gorako udalak eta hiru hiriburuak bereiziz.
- ◆ **5.000 biztanletik beherako udalerrietako** toki-administrazioen **lagin** esanguratsu bat hartu da landa-lana egiteko (98 udal), hau da, 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udalen % 54,7, non estratu horretako udalerrietako biztanleen % 55,9 bizi diren.
- ◆ **Zentsu** bidezko landa-lan hori egin da administrazio baten edo batzuen mendeko edo administrazio horiek % 100ean partaidetutako **erakunde autonomo eta sozietate publikoen** artean.

1. TAULA. Azterlanaren xede den unibertso eta lagin-hedapeneko ratioak.

Entitate mota	Unibertsoa		Lagina		Lagin-hedapena	
	Enti. kop.	Herria	Enti. kop.	Herria	Enti. kop. %	Herria %
Udalak	251	2.199.711	170	2.101.412	67,7	95,5
<5.000 biztanle	179	222.943	98	124.644	54,7	55,9
5.000-20.000 biztanle	53	555.025	53	555.025	100,0	100,0
> 20.000 biztanle	16	644.787	16	644.787	100,0	100,0
Hiriburuak	3	776.956	3	776.956	100,0	100,0
Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	7	-	7	-	100,0	-
Foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza	4	2.199.711	4	2.199.711	100,0	100,0
GUZTIRA	262	2.199.711	181	-	69,1	-

Iturria: EIN, 2022

A.2.1. Laginketa-sistema

5.000 biztanletik beherako udalerrien laguntza lortzeko lurralde historikoaren (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta habitataren edo herriaren tamainaren (1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak, 1.000-2.000 biztanlekoak eta 2.000-5.000 biztanlekoak) arabera esleipen proportzionala duen laginketa geruzatu bat aplikatu da. Geruza bakoitzean parte hartzen duen udalerrian azken hautaketa ausaz egin da ausazko zenbakiekin. 98 udal parte-hartzaileak hautatu dira laginketa-sistema horren bidez, eta udalerririk gehien zehaztuta daude, lurralde historikoaren arabera, eranskinaren lehen atalean, hau da, azterlanean parte hartu duten entitate guztien zerrendari buruzko atalean.




**SORMEN-SEKTOREETAN
LIKIDATUTAKO GASTUA**

B.1 Sormen-sektorearen arabera likidatutako gastua

Kulturan likidatutako gastua aipatzen dugunean, EAEko administrazio publikoetan kulturean betearazitako aurrekontuez ari gara, haien arteko kontsolidazio-tarterik gabe. EAEko Administrazio publikoen 2020an sormen-sektoreetan likidatutako gastu osoa 180.130.830 eurora iristen da. Gastuaren zatirik handiena (119 milioi euro eta gastuaren % 66) Hizkuntzaren industriak sektoreari dagokio. Sektore horren barruan, hizkuntzen irakaskuntzaren azpisektoreari bideratu zaizkio baliabide gehien 2020an, 113 milioi euro zehazki. Euskal Administrazio publikoak 6 milioi euro bideratu ditu 2020an itzulpenaren eta 0,6 milioi euro hizkuntzen industriaren beste jarduera batzuetara (hizkuntzen teknologia, eta abar). Bigarren gasturik handiena duen sektorea Arkitektura da (30,7 milioi euro eta gastuaren % 17) eta hirugarren tokian dago Publizitatea eta marketin sektorea (25,2 milioi euro eta gastuaren % 14).

Gainerako sormen-sektoreei bideratutako gastua nabarmen jaisten da, guztiek ere gastu Guztiraaren % 1 inguruko edo gutxiagoko balioak lortzen dituztelarik sormen-sektoreetan. Haien artean Diseinu sektorea nabarmentzen da 1,9 milioi eurekin, eta kultura- eta sormen-industrien zeharkako sektorea, 1,8 milioi eurekin. Ondoren, Sormen-gastronomia dator 619 mila eurekin, gero Moda, 510 mila eurekin, eta azken tokian Bideo-jokoak, 282 mila eurekin.

1. GRAFIKOA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua (€).



2. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua (€).


Sormen-sektorea	Diru-kopurua (€)	%
1. Hizkuntzaren industriak	119.202.615	66,2
- Itzulpengintza.	5.898.837	3,3
- Hizkuntzen irakaskuntza	112.677.709	62,6
- Beste batzuk	626.068	0,3
2. Bideo-jokoak	282.253	0,2
3. Diseinua	1.860.072	1,0
4. Publizitatea eta marketina	25.217.944	14,0
5. Moda	509.608	0,3
6. Arkitektura	30.679.450	17,0
7. Sormen-gastronomia	618.750	0,3
0. KSI sektorea	1.760.138	1,0
Guztira	180.130.830	100,0

B.2 Sormen-sektoreetan likidatutako gastua, administrazio-mailen arabera


Atal honetan administrazio-maila bakoitzean –hau da, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak eta erakunde autonomoak, eta sozietate publikoak– likidatutako gastua aztertzen da.

2. GRAFIKOA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera (€).


EUSKO JAURLARITZA




FORU-ALDUNDIAK



UDALAK



ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOAK



3. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera.

Sormen-sektorea		Eusko Jaurlaritzza	Foru-aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	50.297.932	3.288.331	17.746.979	47.869.373	119.202.615
	%	42,2	2,8	14,9	40,2	100,0
2. Bideo-jokoak	€	45.995	181.258	0	55.000	282.253
	%	16,3	64,2	0,0	19,5	100,0
3. Diseinua	€	708.385	493.152	418.060	240.475	1.860.072
	%	38,1	26,5	22,5	12,9	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	8.762.623	6.037.201	9.326.201	1.091.919	25.217.944
	%	34,7	23,9	37,0	4,3	100,0
5. Moda	€	0	375.020	0	134.588	509.608
	%	0,0	73,6	0,0	26,4	100,0
6. Arkitektura	€	3.232.559	10.600.755	16.837.862	8.274	30.679.450
	%	10,5	34,6	54,9	0,0	100,0
7. Sormen-gastronomia	€	500.000	118.750	0	0	618.750
	%	80,8	19,2	0,0	0,0	100,0
0. KSI sektorea	€	1.197.706	562.432	0	0	1.760.138
	%	68,0	32,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	€	64.745.200	21.656.898	44.329.102	49.399.630	180.130.830
	%	35,9	12,0	24,6	27,4	100,0

Eusko Jaurlaritzza

Eusko Jaurlaritzak sormen-sektoreetara bideratutako likidatutako gastu Guzтираa 64,7 milioi eurora iristen da.

Eusko Jaurlaritzak 50,3 milioi euro bideratu ditu 2020an Hizkuntzaren industrietara. Sektore hori beste sektore batzuen oso gainerik dago bideratutako baliabideei dagokienez. Zenbateko horren zati handi bat hizkuntzen irakaskuntzari dagokio (49,1 milioi euro) eta puntu honetan aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari egindako 39,9 milioi euroko transferentzia.

Eusko Jaurlaritzak 8,8 milioi euro bideratu ditu Publizitate eta marketinera. Komunikazio instituzionalarekin lotutako partidak eta komunikabideetan egindako kanpainak (EITBko kanpaina, bereziki) dira batez ere.

Hirugarren tokian Arkitektura dago, 3,2 milioi euroekin. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak Sailarekin lotutako proiektuekin zerikusia duten partidak dira gehienak ere.

Kultura- eta sormen-industrien zeharkako sektorera 1,2 milioi euro bideratu dira, 708 mila euro Diseinura, 500 mila euro Sormen-gastronomiara eta, azkenik, 46 mila euro Bideo-jokoetara (sektoreko enpresei edo elkarteei egindako transferentziak).

Foru-aldundiak

Foru-aldundiek sormen-sektoreetara bideratutako likidatutako gastu Guztiraa 21,7 milioi eurora iristen da.

EAEko foru-aldundi guztiek 10,6 milioi euro bideratu dituzte Arkitektura sektorera 2020an. Publizitate eta marketineko gastua 6,0 milioi eurora iristen da eta Hizkuntzaren industriaren sektorea du atzetik, 3,3 milioi eurekin. Itzulpengintza-jardueratik eratorritako gastua da nagusi kasu horretan: itzulpengintzako sektorean 2,3 milioi euro izan da foru-aldundien gastua.

KSlen zeharkako sektorera 562 mila euro bideratu dira, 493 mila euro Diseinura, 375 mila euro Modara, 181 mila Bideo-jokoetara eta 119 mila Sormen-gastronomiara.

Udalak

Udalek sormen-sektoreetara bideratutako likidatutako gastu Guztiraa 44,3 milioi eurora iristen da.


Hizkuntzaren industria eta Arkitektura sektoreak nabarmentzen dira EAEko udalek sektore horietara bideratu dituzten baliabideak kontuan izanda. 17,7 milioi bideratu dira Hizkuntzaren industriari sektorera: diru-kopuru horretatik 14,8 milioi hizkuntzen irakaskuntzara bideratu dira (euskara gehienbat). Itzulpengintzako jarduerara lotutako gastua da gainerakoa (2,6 milioi euro).

Udalek 2020an arkitekturari izandako gastua 16,8 milioi eurora iristen da. Eta publizitatean eta marketinean izandako gastua 9,3 milioi eurora. Azkenik, 418 mila euro bideratu dira 2020 Diseinua sektorera.

Udalen gastua populazio-habitataren eta sormen-sektorearen arabera aztertuz gero, honako hau lortzen dugu:

- ◆ Hizkuntzaren industriaren sektorean gastuaren erdia baino zertxobait gehiago hiriburu ez diren biztanle gehieneko udalek (20.000 biztanle baino gehiago dituztenak) egikaritu dituzte: 9,4 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte sektorera (gastuaren % 53 Hizkuntzaren industrietan), eta diru-kopuru horretatik 8,4 milioi euskararen irakaskuntzari dagozkio. Hizkuntzaren industrietako gastuaren beste zati garrantzitsu bat 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalek egikaritzen dute: 6,2 milioi euro (gastuaren % 35 sektorean), diru-kopuru horretatik 5,3 milioi euskararen irakaskuntzara bideratzen direlarik.
- ◆ 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalek Diseinuan egindako gastua 193 milako eurora iristen da; 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalek egindakoa 158 mila eurora, eta 20.000 eurotik gorakoek egindakoa 67 mila eurora.
- ◆ Publizitatean eta marketinean izandako gasturik handiena euskal hiriburuetako udalek eta 20.000 eurotik gorakoek egikaritu dute: habitat horietako bakoitzak ia 3 milioi euro bideratu dute sektorera (gastuaren % 32 sektorean habitat bakoitzean). 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalek Publizitatean eta marketinean izandako gastua 2,5 milioi euro izan da (%27) eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan gastuak ez du milioi bat euroko langa gainditzen (884 mila euro; gastu Guztiraaren % 10 sektorean).
- ◆ Arkitekturara bideratutako populazio-habitaten arteko gastuaren banaketa nahiko ekitatiboa da: % 23 eta % 29 bitarte banatzen da, eta 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalak dira sektorean gastu handiena egin dutenak (4,9 milioi euro) eta hiriburuak, aldiz, txikiak (ia 4 milioi euroekin).

3. GRAFIKOA. EAEko udalek sormen-sektoreetarako bideratutako gastua, populazio-habitataren arabera (%).



4. TAULA. EAEko udalek sormen-sektoreetarako bideratutako gastua, populazio-habitataren arabera.

Sormen-sektorea		5.000 biztanle baino gutxiagoko udalak	5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalak	20.000 biztanle baino gehiagoko udalak	Hiriburuetakoko udalak	Udalak, guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	775.597	6.241.513	9.393.872	1.335.997	17.746.979
	%	4,4	35,2	52,9	7,5	100,0
3. Diseinua	€	157.946	193.076	67.037	0	418.060
	%	37,8	46,2	16,0	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	883.974	2.502.684	2.968.566	2.970.977	9.326.201
	%	9,5	26,8	31,8	31,9	100,0
6. Arkitektura	€	3.922.675	4.916.431	4.037.686	3.961.070	16.837.862
	%	23,3	29,2	24,0	23,5	100,0
Guztira	€	5.740.192	13.853.705	16.467.161	8.268.044	44.329.102
	%	12,9	31,3	37,1	18,7	100,0


EAEko udalerrietan lurralde historikoaren arabera sormen-sektoreetan likidatutako gastua aztertuz, honako hau lortzen dugu:

- ◆ Gipuzkoako udalak Hizkuntzaren industriak sektorean nabarmentzen dira gainerako udalen gainetik: sektorean egindako gastuaren % 57 Gipuzkoako udalei dagokie (10,2 milioi euro), eta diru-kopuru horretatik 8,4 milioi euro hizkuntzen irakaskuntzara bideratu dira. Bizkaiko udaletan

hizkuntzen irakaskuntzara bideratutako gastua 5,8 milioi eurora iristen da, eta Arabako udaletan 852 mila eurora.

- ◆ Bizkaiko udalak Arkitektura sektorean, Publizitatea eta marketinean, eta Diseinuan egindako gastuarengatik nabarmentzen dira (8,6 milioi euro eta gastuaren % 51, 6,2 milioi eta sektoreko gastuaren % 67, eta 215 mila euro eta gastuaren % 51, hurrenez hurren).

4. GRAFIKOA. EAEko udalak sormen-sektoreetarako bideratutako gastua, lurralde historikoaren arabera (%).



5. TAULA. EAEko udalak sormen-sektoreetara bideratutako gastua, lurralde historikoaren arabera.

Sormen-sektorea		Arabako udalak	Gipuzkoako udalak	Bizkaiko udalak	Udalak, guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	932.766	10.157.361	6.656.852	17.746.979
	%	5,3	57,2	37,5	100,0
3. Diseinua	€	64.919	138.377	214.764	418.060
	%	15,5	33,1	51,4	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	900.201	2.213.656	6.212.344	9.326.201
	%	9,7	23,7	66,6	100,0
6. Arkitektura	€	1.731.834	6.482.155	8.623.873	16.837.862
	%	10,3	38,5	51,2	100,0
Guztira	€	3.629.720	18.991.549	21.707.833	44.329.102
	%	8,2	42,8	49,0	100,0

Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

Erakunde autonomoek eta sozietate publikoek sormen-sektoreetara bideratutako likidatutako gastu Guztiraa 49,4 milioi eurora iristen da.

Azterlanean bildutako erakunde autonomoek eta sozietate publikoek sormen-sektoreetan egindako gastuaren zati handiena Hizkuntzaren Industriak sektorera lotutako gastua da. Azterlanean HABE erakundea sartzeak izugarri handitzen du sektorera bideratutako gastua.

Publizitatean eta marketinean izandako gastua 1,1 milioi izan da 2020an. Nabarmen gutxitu dira gainerako sormen-sektoreei bideratutako zenbatekoak: Diseinura 240 mila euro bideratu dira, 135 mila euro Modara eta 8 mila euro Arkitekturara.

B.3 Gastuaren pisu erlatiboa sormen-sektoreetan

EAEko Administrazio publikoak sormen-sektoreak likidatutako gastu guztiaren pisu erlatiboa 2020 gastu Guztiraarekiko % 1,86 da. Pisu erlatiboa EAEko udalen batezbestekoena baino zertxobait handiagoa da: % 1,89. Eusko Jaurlaritzan sormen-sektoreetako gastuaren pisu erlatiboa aurrekontu Guztiraarekiko % 0,55 da eta foru-aldundietan % 0,69.

Entitateen aurrekontu Guztiraekiko pisu erlatibo handiena duen sormen-sektorea Arkitektura da: % 1,09. EAEko udalen kasuan % 1,11ra gehitzen da proportzio hori.

6. TAULA. Sormen-sektore bakoitzaren pisu erlatiboa, administrazio-mailen arabera (%).

Sormen-sektorea	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	0,43	0,10	0,46	0,46
2. Bideo-jokoak	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Diseinua	0,01	0,02	0,03	0,03
4. Publizitatea eta marketina	0,07	0,21	0,29	0,28
5. Moda	0,00	0,01	0,00	0,00
6. Arkitektura	0,03	0,32	1,11	1,09
7. Sormen-gastronomia	0,00	0,00	0,00	0,00
0. KSI sektorea	0,01	0,03	0,00	0,00
Guztira	0,55	0,69	1,89	1,86

Populazio-habitataren arabera 20.000 biztanle baino gehiagoko udaletan du garrantzi gehien gastuak sormen-sektoreetan entitateen gastu Guztiraarekiko: gastu Guztiraaren % 2,10 bideratzen da sormen-sektoreetara entitate horietan. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalen gastua % 1,9 inguru da, eta hiriburuetan % 0,70era jaisten da pisu erlatiboa.

Lurralde historikoaren arabera pisu erlatiboaren indize handiena Bizkaiko udalei dagokie: likidatutako gastu Guztiraaren % 2,12; Gipuzkoako udaletan % 1,80 da eta Araban % 1,50.

7. TAULA. Sormen-sektore bakoitzaren pisu erlatiboa EAEko udaletan, populazio-habitataren arabera (%).

Sormen-sektorea	5.000 biztanle baino gutxiagoko udalak	5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalak	20.000 biztanle baino gehiagoko udalak	Hiriburuetako udalak	Udalak, guztira
1. Hizkuntzaren industriak	0,16	0,79	1,27	0,14	0,46
3. Diseinua	0,04	0,03	0,00	0,00	0,03
4. Publizitatea eta marketina	0,24	0,34	0,40	0,21	0,29
6. Arkitektura	1,47	0,69	0,42	0,35	1,11
Guztira	1,90	1,86	2,10	0,70	1,89

8. TAULA. Sormen-sektore bakoitzeko pisu erlatiboa, lurralde historiakoaren arabera (%).

Sormen-sektorea	Arabako udalak	Gipuzkoako udalak	Bizkaiko udalak	Udalak, guztira
1. Hizkuntzaren industriak	0,20	0,70	0,37	0,46
3. Diseinua	0,05	0,03	0,03	0,03
4. Publizitatea eta marketina	0,15	0,21	0,41	0,29
6. Arkitektura	1,11	0,88	1,30	1,11
Guztira	1,50	1,80	2,12	1,89

B.4 Biztanleko gastua sormen-sektoreetan

Sormen-sektore guztien biztanleko gastua 81,9 eurora iristen da. Hizkuntzaren industriak sektorera 54,2 euro bideratu dira biztanleko, diru-kopuru horretatik 51,2 euro hizkuntzen irakaskuntzari, 2,7 euro itzulpengintzari eta 0,3ko sektoreko beste esparru batzuei dagozkielarik.

Biztanleko gastua Arkitekturan 13,9 euro izan da, eta Publizitatean eta marketinean 11,5 euro. Gainerako sormen-sektoreetako gastua biztanleko euro bat baino gutxiago.

9. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako biztanleko gastua.

Sormen-sektorea	€/ biztanle
1. Hizkuntzaren industriak	54,2
- Itzulpengintza	2,7
- Hizkuntzen irakaskuntza	51,2
- Beste batzuk	0,3
2. Bideo-jokoak	0,1
3. Diseinua	0,8
4. Publizitatea eta marketina	11,5
5. Moda	0,2
6. Arkitektura	13,9
7. Sormen-gastronomia	0,3
0. KSI sektorea	0,8
Guztira	81,9

Sormen-sektoreetako gastu Guztiraari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren gastua da nagusi biztanleko 29,4 euroekin; udalen biztanleko gastua zertxobait txikiagoa da, 20,2 euro, eta foru-aldundiena nabarmen jaisten da gainerako administrazio-mailekin alderatuta: 9,8 euro biztanleko.

Hizkuntzaren industrien sektorearen barruan Eusko Jaurlaritzaren gastua da nagusi, biztanleko 22,9 euroekin. EAEko udalen biztanleko gastua 8,1 euro da eta foru-aldundiena 1,5 euro.

Publizitatea eta marketina sektorean udalek eta Eusko Jaurlaritzak egindako biztanleko gastua antzeko mailetan dago: 4,2 euro eta 4,0 euro, hurrenez hurren. Foru-aldundietan zertxobait txikiagoa da, 2,7 euro biztanleko.

Udalen biztanleko gastua da nagusi Arkitektura sektorean: pertsonako 7,7 euro bideratu dira sektore horretara. Foru-aldundietan biztanleko 4,8 euroan dago balioa, eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan biztanleko 1,5 euroraino jaisten da.

10. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera biztanleko bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera (€/biz).

Sormen-sektorea	Eusko Jaurlaritzza	Foru-aldundiak	Udalak
1. Hizkuntzaren industriak	22,9	1,5	8,1
2. Bideo-jokoak	0,0	0,1	0,0
3. Diseinua	0,3	0,2	0,2
4. Publizitatea eta marketina	4,0	2,7	4,2
5. Moda	0,0	0,2	0,0
6. Arkitektura	1,5	4,8	7,7
7. Sormen-gastronomia	0,2	0,1	0,0
0. KSI sektorea	0,5	0,3	0,0
Guztira	29,4	9,8	20,2

Udalen biztanleko gastua biztanleko 25 euro inguru da hiriburu ez diren EAEko udalerrietako udaletan (25,7 euro biztanleko 5.000 biztanle baino gutxiagokoetan, biztanleko 25 euro 5.000 eta 20.000 biztanle bitartekoetan, eta biztanleko 25,5 euro 20.000 biztanle baino gehiagokoetan). Hiriburuetak udalen ratioa txikiagoa da, biztanleko 10,6 euroekin.

Hiriburuak ez diren biztanle gehieneko udalak nabarmentzen dira Hizkuntzaren industriaren sektorean: 20.000 biztanle baino gehiagokoetan biztanleko ratioa 14,6 euro da, eta 5.000 eta 20.000 biztanle bitartekoetan 11,2 euro.

Publizitatera eta marketinera biztanleko bideratutako baliabideak udal-habitat guztietan 4 eurotik 5 eurorainoko tartean daude populazio-habitat guztietan.

Arkitekturan udalerrri txikiagoetako udalak nabarmentzen dira sektorera biztanleko 17,6 euro bideratuta. Biztanle gehiagoko herria den heinean gutxitzen da zenbateko hori, hiriburuetak biztanleko 5,1 euroko zenbatekora iritsi arte.

11. TAULA. EAEko udalek sormen-sektoreetarako biztanleko bideratutako gastua, populazio-habitataren arabera.

Sormen-sektorea	5.000 biztanle baino gutxiagoko udalak	5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalak	20.000 biztanle baino gehiagoko udalak	Hiriburuetak udalak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	3,5	11,2	14,6	1,7	8,1
3. Diseinua	0,7	0,3	0,1	0,0	0,2
4. Publizitatea eta marketina	4,0	4,5	4,6	3,8	4,2
6. Arkitektura	17,6	8,9	6,3	5,1	7,7
Guztira	25,7	25,0	25,5	10,6	20,2

Bizkaiko udaletako sormen-sektoretako biztanleko gastua gainerako lurralde historikoetako udalen gastuen gainetik dago: Bizkaiko udaletan biztanleko 30,1 euro da ratioa, Gipuzkoakoetan 16,5 euro eta Arabakoetan biztanleko 11 euro.

Arabako udalerriek Hizkuntzaren industrietan biztanleko duten gastua (2,8 euro biztanleko) gainerako lurralde historikoetako udalena baino txikiagoa da (Gipuzkoako eta Bizkaiko udalen ratioak biztanleko 9 euro inguru dira).

Publizitatean eta marketinean Bizkaiko udalerrietako udalak nabarmentzen dira, 8,6 euroko ratioarekin, Arabako eta Gipuzkoako udalerriek biztanleko dituzten 2,7 euroko eta 1,9 euroko ratioen aurrean, hurrenez hurren.

Bizkaiko udalek Arkitekturan biztanleko duten gastua 12 euro da. Arabako eta Gipuzkoako udalen ratioak txikiagoak dira, biztanleko 5 euro inguru.

12. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera biztanleko bideratutako gastua, administrazio-mailen arabera (€/biz).

Sormen-sektorea	Arabako udalak	Gipuzkoako udalak	Bizkaiko udalak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	2,8	8,8	9,2	8,1
3. Diseinua	0,2	0,1	0,3	0,2
4. Publizitatea eta marketina	2,7	1,9	8,6	4,2
6. Arkitektura	5,2	5,6	12,0	7,7
Guztira	11,0	16,5	30,1	20,2

B.5 Sormen sektoreetan likidatutako gastuaren sailkapena

Sailkapen ekonomikoaren ikuspuntutik begiratuta aztertuko da sormen-sektoreetara bideratutako gastua txostenaren atala honetan: esparru ekonomikoaren arabera lehenik, eta kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailaren arabera ondoren.

Sormen-sektore ia guztietan gastu arrunta da nagusi kapital-gastuekin alderatuta: Hizkuntzaren industriaren sektorean, Bideo-jokoetan, Diseinuan, Publizitatean eta marketinean, Modan eta Sormen-gastronomian 10 eurotik 9 baino gehiago gastu arruntari dagozkio. KSI zeharkako sektorean portzentajea zertxobait gutxitu bada ere, gastu arruntaren pisuak oso handia izaten jarraitzen du (% 87).

Arkitektura sektorean ekitatiboagoa da gastu arruntaren eta kapital-gastuaren banaketa, gastu arruntak nagusi izaten jarraitzen badu ere: Arkitekturara bideratutako likidatutako gastuaren % 57 gastu arrunta da eta % 43 kapital-gastua.

13. TAULA. Sormen-gastu bakoitzera bideratutako gastua, esparru ekonomikoaren arabera.

Sormen-sektorea		Gastu arrunta	Kapital-gastua	Finantza-aktibo eta -pasiboak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	119.062.034	116.581	24.000	119.202.615
	%	99,9	0,1	0,0	100,0
- Itzulpengintza	€	5.898.837	0	0	5.898.837
	%	100,0	0,0	0,0	100,0
- Hizkuntzen irakaskuntza	€	112.567.129	86.581	24.000	112.677.709
	%	99,9	0,1	0,0	100,0
- Beste batzuk	€	596.068	30.000	0	626.068
	%	95,2	4,8	0,0	100,0
2. Bideo-jokoak	€	282.253	0	0	282.253
	%	100,0	0,0	0,0	100,0
3. Diseinua	€	1.809.021	51.051	0	1.860.072
	%	97,3	2,7	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	25.185.960	31.984	0	25.217.944
	%	99,9	0,1	0,0	100,0
5. Moda	€	509.608	0	0	509.608
	%	100,0	0,0	0,0	100,0
6. Arkitektura	€	17.581.152	13.098.298	0	30.679.450
	%	57,3	42,7	0,0	100,0
7. Sormen-gastronomia	€	600.000	18.750	0	618.750
	%	97,0	3,0	0,0	100,0
0. KSI sektorea	€	1.537.338	222.800	0	1.760.138
	%	87,3	12,7	0,0	100,0
Guztira	€	166.567.367	13.539.464	24.000	180.130.830
	%	92,5	7,5	0,0	100,0

Eusko Jaurlaritzza

Sormen-sektore bakoitzean aldatu egiten da kapitulu ekonomikoen pisua:

- Hizkuntzaren industriak:** gastu ia osoa transferentzia arruntei dagokie (gastuaren % 92): guztira sektore honetan 46,2 milioi euro transferitu dira, diru-kopuru horretatik 39,9 milioi euro Eusko Jaurlaritzak HABEri egindako ekarpenari dagozkiolarik (39,9 milioi euroko ekarpena). Bada beste transferentzia garrantzitsu bat, 5,7 milioi euro IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari¹. Sektorean ondasun eta zerbitzuetan izandako gastua 4,1 milioi eurora iristen da, diru-kopuru horretatik ia 3 milioi hizkuntzen irakaskuntzari dagozkiolarik (euskara irakasteko zentroen gastuak, IRALE programa eta abar).
- Bideo-jokoak:** gastu arrunt osoa transferentzia arruntei dagokie (46 mila euro).
- Diseinua:** ondasun eta zerbitzuetako gastua da nagusi 631 mila eurekin (gastu arruntaren % 89), 78 mila euro transferitu dira transferentzia arruntetan (gastu arruntaren % 11).
- Publizitatea eta marketina:** sektore honetan egindako gastu arruntaren lau eurotik hiru ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntari dagozkio, hau da, publizitate-sektoreko enpresak kontratatzeari: 6,6 milioi euro. 2,2 milioi euro transferitu dira: transferentzia horien arteko gehienak EITBra izan dira hainbat promoziotarako (1,7 milioi euro).
- Arkitektura:** sektorera bideratutako 10 eurotik 6 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntari dagozkio (1,9 milioi euro). Gastuaren laurden bat (827 mila euro, % 26) egiazko inbertsioei dagokie eta gainerakoak transferentziak dira (% 9 kapital-transferentziak, 278 mila euro, eta % 6 transferentzia arruntak, 199 mila euro).
- Sormen-gastronomia:** sektorera bideratutako 10 eurotik 8 transferentzia arruntei dagozkio (400 mila euro), eta gainerakoa ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei (100 mila euro).
- KSI zeharkako sektorea:** KSlen esparrura egindako transferentziak dira nagusi sektore honetan: 744 mila euro transferitu dira (gastuaren % 62). Ondasun arrunt eta zerbitzuetan izandako gastua 453 mila eurora iristen da (gastuaren % 38).

1 Eusko Jaurlaritzak IVAPI egindako transferentziaren zati bat barne hartzen da azterlanean. Egindako estimazioen arabera, barnean hartu beharreko zenbatekoa transferentzia Guztiraaren % 56,9 da.

14. TAULA. Eusko Jaurlaritzak sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.

Sormen-sektorea		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Egiazko inbertsioak	VII. kap. Kapital- transferentziak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	6.462	4.078.887	46.212.583	0	0	50.297.932
	%	0,0	8,1	91,9	0,0	0,0	100,0
- Itzulpengintza	€	0	838.178	53.075	0	0	891.253
	%	0,0	94,0	6,0	0,0	0,0	100,0
- Hizkuntzen irakaskuntza	€	6.462	2.930.641	46.159.508	0	0	49.096.612
	%	0,0	6,0	94,0	0,0	0,0	100,0
- Beste batzuk	€	0	310.068	0	0	0	310.068
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
2. Bideo-jokoak	€	0	0	45.995	0	0	45.995
	%	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
3. Diseinua	€	0	630.885	77.500	0	0	708.385
	%	0,0	89,1	10,9	0,0	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	0	6.607.873	2.154.750	0	0	8.762.623
	%	0,0	75,4	24,6	0,0	0,0	100,0
6. Arkitektura	€	0	1.929.154	198.941	826.878	277.587	3.232.559
	%	0,0	59,7	6,2	25,6	8,6	100,0
7. Sormen-gastronomia	€	0	100.000	400.000	0	0	500.000
	%	0,0	20,0	80,0	0,0	0,0	100,0
0. KSI sektorea	€	0	453.472	744.234	0	0	1.197.706
	%	0,0	37,9	62,1	0,0	0,0	100,0
Guztira	€	6.462	13.800.270	49.834.003	826.878	277.587	64.745.200
	%	0,0	21,3	77,0	1,3	0,4	100,0

Foru-aldundiak

Foru-aldundiek sormen-sektore bakoitzean egindako gastua honela banatzen da kapitulu ekonomikoei dagokienez.

- Hizkuntzaren industriak:* gastuaren ia erdia (% 49) sailkapen ekonomikoaren I. kapituluko langile-gastuari dagokio: gastu hori guztira 1,6 milioi eurora iristen da eta foru-aldundien beraien itzulpengintza-jarduerari lotutako langileen gastua da ia osorik (itzultzaileen langile-gastua). Gastuaren zati garrantzitsu bat ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntari dagokio (1,1 milioi euro, % 34), kopuru horretatik 648 mila euro itzulpengintza-lanekin lotutako kontratazioei dagozkielarik, 223 mila euro hizkuntzen irakaskuntzari lotutako gastuei (ALET programak, eta abar) eta 241 mila euro sektoreko beste gastu mota bati (corpus terminologikoa...). Sektorearen barruan, transferentziak 521 mila eurora iristen dira (gastuaren % 16), eta euskara irakasteko laguntzak dira gehienak.
- Bideo-jokoak:* sektoreko gastu guztiak transferentzia arrunten VI. kapitulari dagozkio: 181 mila euro.
- Diseinua:* Diseinuan egindako gastuaren erdia baino zertxobait gehiago (% 52) beste entitate batzuei egindako transferentziei dagokie: 258 mila euro, zehazki. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren II. kapitulari dagokio gainerako gastua (% 48): 235 mila euro.
- Publizitatea eta marketina:* ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren II. kapitulan sailkatzen da zenbateko Guztiraa (6 milioi euro): diru-kopuru horren atzean publizitate-ekintzak burutzeko publizitate-enpresen kontratazioarekin lotutako partidak eta entitateen sustapen-kanpainak daude.
- Moda:* sektoreko gastu guztiak transferentzia arrunten VI. kapitulari dagozkio: 375 mila euro.
- Arkitektura:* foru-aldundiek sektorean egindako gastuaren zati handi bat inbertsioekin lotuta dago: sektorean egindako proiektuak dira (7,7 milioi eurora iristen da zifra, gastuaren % 73). Arkitekturako langile-gastuak 2,2 milioi eurora iristen dira (% 21). 626 mila euro transferitu dira: kapital-transferentziak dira bere osotasunean.
- Sormen-gastronomia:* gastronomian egindako gastuaren zati handiena transferentzia arrunten kapitulan sailkatzen da (100 mila euro eta gastuaren % 84).
- KSI zeharkako sektorea:* transferentziei dagokie sektore honetan barne hartutako gastu guztia: gastuaren 10 eurotik 6 transferentzia arrunten IV. kapitulari dagozkio (340 mila euro) eta gainerakoa, 223 mila euro, kapital-transferentziei.

15. TAULA. Foru-aldundiek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.

Sormen-sektorea		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Egiazko inbertsioak	VII. kap. Kapital- transferentziak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	1.625.703	1.111.707	520.920	0	30.000	3.288.331
	%	49,4	33,8	15,8	0,0	0,9	100,0
- Itzulpengintza	€	1.618.521	648.106	0	0	0	2.266.627
	%	71,4	28,6	0,0	0,0	0,0	100,0
- Hizkuntzen irakaskuntza	€	7.182	222.602	475.920	0	0	705.704
	%	1,0	31,5	67,4	0,0	0,0	100,0
- Beste batzuk	€	0	241.000	45.000	0	30.000	316.000
	%	0,0	76,3	14,2	0,0	9,5	100,0
2. Bideo-jokoak	€	0	0	181.258	0	0	181.258
	%	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
3. Diseinua	€	0	235.382	257.770	0	0	493.152
	%	0,0	47,7	52,3	0,0	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	0	6.018.255	18.946	0	0	6.037.201
	%	0,0	99,7	0,3	0,0	0,0	100,0
5. Moda	€	0	0	375.020	0	0	375.020
	%	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
6. Arkitektura	€	2.238.855	32.575	0	7.703.693	625.632	10.600.755
	%	21,1	0,3	0,0	72,7	5,9	100,0
7. Sormen-gastronomia	€	0	0	100.000	0	18.750	118.750
	%	0,0	0,0	84,2	0,0	15,8	100,0
0. KSI sektorea	€	0	0	339.632	0	222.800	562.432
	%	0,0	0,0	60,4	0,0	39,6	100,0
Guztira	€	3.864.559	7.397.918	1.793.546	7.703.693	897.182	21.656.898
	%	17,8	34,2	8,3	35,6	4,1	100,0

Udalak

Udalek sormen-sektore bakoitzean egindako gastua honela banatzen da kapitulu ekonomikoei dagokienez:

Hizkuntzaren industriak: gastuaren zati handiena langile-gastuen I. kapituluaren eta transferentzia arruntan IV. kapituluaren artean banatzen da: hizkuntzaren industrietako langile-gastua 8,3 milioi eurora iristen da (gastuaren % 47): zati handiena euskararen irakaskuntzari lotutako gastuari badagokio ere, hau da, euskaltegietako langileen gastuak (6,3 milioi euro), itzulpengintza-jarduerei

lotutako langile-gastua ere aipatu daiteke, 2 milioi eurora iristen dena. Transferentzia arruntak sektoreko gastuaren % 43 dira, eta euskararen irakaskuntzari lotutako transferentziak dira gehienak (transferentzia euskaltegietara edo euskara irakasteko zentroetara, euskara irakasteko laguntzak eta dirulaguntzak, eta abar). Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei dagozkie 1,7 milioi euro, eta kopuru horretatik milioi 1 euro euskararen irakaskuntzari daude lotuta (euskaltegien mantentze-lanarekin, eta abar, lotutako gastua da) eta 690 mila euro itzulpengintzari lotuta daude (zehazki itzulpengintza-jardueretarako enpresak kontratatzeari).

Publizitatea eta marketina: sektorean egindako gastuaren % 98 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren II. kapituluaren sailkatzen da (9,1 milioi euro). EAEko biztanle gehieneko udalei dagozkie zifra horren atzean dauden partida garrantzitsuenak: Bilboko Udala (2,2 milioi euro), Gasteizko Udala (660 mila euro), Donostiako Udala (148 mila euro), Getxoko Udala (486 mila euro), Galdakaoko Udala (377 mila euro) edo Irungo Udala (330 mila euro), eta publizitateko eta komunikazioko enpresen kontratazioari lotuta egon behar dute.

Arkitektura: EAEko udalek sektorerara bideratutako 10 eurotik 6 langile-gastuari dagozkie (hau da, arkitekturako jarduerarekin lotutako langile propioei): 10,1 milioi euro, kopuru horretatik 3,4 milioi EAEko hiru hiriburuetako udalei dagozkielarik (Bilboko Udala 1,7 milioi euro, Donostiako udala 1,1 milioi euro eta Gasteizko Udala 685 mila euro).

16. TAULA. Udalek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.

Sormen-sektorea		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Egiazko inbertsioak	VII. kap. Kapital- transferentziak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	8.341.752	1.707.107	7.678.199	2.209	17.711	17.746.979
	%	47,0	9,6	43,3	0,0	0,1	100,0
- Itzulpengintza	€	2.008.786	690.435	0	0	0	2.699.222
	%	74,4	25,6	0,0	0,0	0,0	100,0
- Hizkuntzen irakaskuntza	€	6.332.966	1.016.671	7.678.199	2.209	17.711	15.047.757
	%	42,1	6,8	51,0	0,0	0,1	100,0
- Beste batzuk	€	9.850	339.159	18.000	51.051	0	418.060
	%	2,4	81,1	4,3	12,2	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	184.383	9.102.005	7.830	31.984	0	9.326.201
	%	2,0	97,6	0,1	0,3	0,0	100,0
6. Arkitektura	€	10.062.935	2.426.022	684.397	3.214.509	450.000	16.837.862
	%	59,8	14,4	4,1	19,1	2,7	100,0
Guztira	€	18.598.919	13.574.293	8.388.426	3.299.753	467.711	44.329.102
	%	42,0	30,6	18,9	7,4	1,1	100,0

Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

Erakunde autonomoek eta sozietate publikoek sormen-sektore bakoitzean egindako gastua honela banatzen da kapitulu ekonomikoetara dagokienez:

- Hizkuntzaren industriak:* Hizkuntzaren industrietan egindako gastuaren zati garrantzitsu bat transferentzia arruntan IV. kapituluan sailkatzen da: transferitutako zenbatekoa 37,1 milioi eurora iristen da gehienez eta ia osorik (35,8 milioi euro) HABEri dagokio (euskaltegiei emandako dirulaguntzak dira). Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren II. kapitulua 6,6 milioi eurora iristen da, gastu hori HABEri dagokio gehienbat eta gastuaren atzean hornidurari eta mantentze-lanei, kolaborazioei, ikastaroei, hitzarmenei eta abarri lotutako partidak daude. Langile-gastua 4 milioi eurora iristen da eta HABEko langileen gastua da.
- Bideo-jokoak:* sektorean egindako gastu guztia (55 mila euro) transferentzia arruntak dira.
- Diseinua:* bi kapitulu ekonomikotan banatzen da sektore honi dagokion gastua: transferentzia arruntan IV. kapitulua (130 mila euro eta gastuaren % 54) eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntaren II, kapitulua (110 mila euro eta gastuaren % 46).
- Publizitatea eta marketina:* sektore honetan egindako gastu osoa (1,1 milioi euro), ondasun arruntan eta zerbitzuen II. kapituluan sailkatzen da, eta hainbat entitaterekin publizitate- eta propaganda-zerbitzuen kontratazioari lotutako gastuak dira.
- Moda:* 10 eurotik 7 (95 mila euro) ondasun arruntan eta zerbitzuen II. kapituluan sailkatzen dira, 40 mila euro, eta transferentzia arruntei dagozkie.
- Arkitektura:* sektorean egindako gastu osoa (8 mila euro) ondasun arruntan eta zerbitzuen II. kapituluan sailkatzen da.

17. TAULA. Erakunde autonomoek eta erakunde publikoek sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua, kapitulu ekonomikoaren arabera.

Sormen-sektorea		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Egiazko inbertsioak	VIII. kap. Finantza- aktiboak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	3.983.307	6.649.493	37.145.913	66.660	24.000	47.869.373
	%	8,3	13,9	77,6	0,1	0,1	100,0
- Itzulpengintza	€	0	41.736	0	0	0	41.736
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
- Hizkuntzen irakaskuntza	€	3.983.307	6.607.757	37.145.913	66.660	24.000	47.827.637
	%	8,3	13,8	77,7	0,1	0,1	100,0
2. Bideo-jokoak	€	0,0	0,0	55.000,0	0,0	0,0	55.000,0
	%	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
3. Diseinua	€	0	110.475	130.000	0	0	240.475
	%	0,0	45,9	54,1	0,0	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	0	1.091.919	0	0	0	1.091.919
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
5. Moda	€	0	94.588	40.000	0	0	134.588
	%	0,0	70,3	29,7	0,0	0,0	100,0
6. Arkitektura	€	0	8.274	0	0	0	8.274
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	€	3.983.307	7.954.751	37.370.913	66.660	24.000	49.399.630
	%	8,1	16,1	75,7	0,1	0,0	100,0



**SORMEN-SEKTOREETAN
KONTSOLIDATUTAKO
GASTUA**

C.1 Kontsolidazioa helmugan eta transferentzia-fluxuak administrazio-mailen arabera

Partiden kontabilizazio bikoitza saihesteko helburuarekin, gastua kontsolidatzeko prozesu bat eraman da aurrera, eta horrek bide ematen du administrazio-maila bakoitzaren kultura-gastua zein den argi eta garbi erakusteko, bakoitzaren deszentralizazio-maila edozein izanik ere. Kontsolidazio-prozesurako gastua helmugan kontsolidatzearen alde egin da, hau da, gastua egikaritzen duen entitatearen gastua atxikitzen da, eta transferentzia eta dirulaguntzak ezabatu egiten dira beren jatorrian. Horrela egindako kontsolidazio-prozesuak gastuaren zertarakoaren eta haren banaketa ekonomikoaren xehetasunaren maila doituena eskaintzen du.

Horrelako kontsolidazio mota bat egiteko, transferentzia jasotzen duen entitateari lotuta jarraitzen du transferentziak eta bikoiztutako zenbatekoa kentzen zaio finantzatzen duen erakundeari.



Transferentzia-fluxuak administrazio-mailen arabera

2020an euskal Administrazioek entitateei sormen-sektoreetan egindako transferentziak 43,6 milioi eurora iritsi ziren guztira. Ia transferentzia guztiak Hizkuntzaren industriaren sektoreari dagozkio (43,2 milioi euro) eta transferentzia horien artean garrantzitsuena zenbatekoari dagokionez Eusko Jaurlaritzak HABEri egindako transferentzia da (39,9 milioi euroko transferentzia). 3,2 milioi euro HABEk EAEko udalei egindako transferentziak dira, eta 50 mila euro foru-aldundien transferentziei.

Arkitektura sektoreko transferentziak 180 mila eurora iristen dira, Diseinukoak 175 mila eurora, Bideo-jokoetakoak 55 mila eurora eta Modakoak 40 mila eurora.

5. GRAFIKOA. Sormen-sektore bakoitzean egindako transferentziak administrazio-maila bakoitzeko (%).




C.2 Gastu kontsolidatua sormen-sektoreen arabera

Sormen-sektoreetan kontsolidatutako gastua 136.525.122 eurora iristen da EAEko Administrazio publiko osorako. Gastuaren erdia baino gehiago, 76,0 milioi euro, Hizkuntzaren industrien sektoreara bideratu da, eta sektore horren barruan 69,5 milioi euro hizkuntzen irakaskuntzaren ondoriozko gastuari dagozkio. Itzulpengintza-jardueretan izandako gastua 5,9 milioi eurora iristen da, eta Hizkuntzaren industrien sektorean beste jarduera batzuetan izandako gastua 626 mila euro izan da.

Bigarren gasturik handiena izan duen sektorea Arkitektura sektorea izan da, 30,5 milioi euroekin (gastuaren % 22). Eta hirugarren lekuan Publizitatea eta marketina dago, gastu Guztiraaren % 19arekin: 25,2 milioi euro.

Gainerako sektoreentzat murrizketa handia izan da gastuari buruz lehen adierazitako hiru sektoreei dagokienez. Gastu handiena duen hurrengo sormen-sektorea KSlen zeharkako sektorea dugu, 1,8 milioi euroko gastuarekin (gastu kontsolidatuaren % 1,3). Ondoren, Diseinua dugu 1,7 milioi euroekin (gastu kontsolidatuaren % 1,2) eta ondoren Sormen-gastronomia 619 mila euroekin. Milioi-erdi euroren azpitik daude Moda sektorea (470 mila euro) eta Bideo-jokoak (227 mila euro).

6. GRAFIKOA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastua (€).



18. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua (€).

Sormen-sektorea	Diru-kopurua (€)	%
1. Hizkuntzaren industriak	76.046.613	55,7
- Itzulpengintza	5.898.837	4,3
- Hizkuntzen irakaskuntza	69.521.708	50,9
- Beste batzuk	626.068	0,5
2. Bideo-jokoak	227.253	0,2
3. Diseinua	1.685.072	1,2
4. Publizitatea eta marketina	25.217.944	18,5
5. Moda	469.608	0,3
6. Arkitektura	30.499.744	22,3
7. Sormen-gastronomia	618.750	0,5
0. KSI sektorea	1.760.138	1,3
Guztira	136.525.122	100,0

C.3 Administrazio-mailen arabera kontsolidatutako gastua

Ondoren, sormen-sektoreen eta gastua egikaritzen duen administrazio-mailaren arabera aztertuko dugu gastu kontsolidatua.

Hizkuntzaren industriak sektorean erakunde autonomoen eta sozietate publikoen gastua da nagusi: gastuaren % 59 egikaritu da administrazio-maila horretan, 44,7 milioi euro zifra absolututan. HABEri dagokio gastu horren zatirik handiena: 43,2 milioi euro. EAEko udalek Hizkuntzaren industrietan izandako gastua % 23 (17,7 milioi euro) izan da; Eusko Jaurlaritzarena % 14 (10,4 milioi euro) eta foru-aldundiena % 4 (3,2 milioi euro).

Bideo-jokoak sektorearen gastuaren erdia baino gehiago foru-aldundiei dagokie (126 mila euro, % 56); ia laurden bat, %24 erakunde autonomo eta sozietate publikoei (55 mila euro), eta gainerakoa, 46 mila euro (% 20), Eusko Jaurlaritzari.

Diseinuan kontsolidatutako gastuaren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzari dagokio, gastua 708 mila eurora iristen delarik; udalena gastu Guztiraaren % 25 da (418 mila euro), foru-aldundiena % 19 (318 mila euro), eta erakunde autonomo eta sozietate publikoetan 240 mila eurora iristen da (gastuaren % 14).

Publizitatea eta marketina sektoreari dagokionez, sektoreko gastua modu orekatuagoan banatzen da Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen artean. 2020an EAEko udalek publizitatean izandako gastua 9,3 milioi eurora iristen da (gastu Guztiraaren % 37 sektorean); Eusko Jaurlaritzarena 8,7 milioi eurora iristen da (gastuaren % 35) eta foru-aldundiena 6,0 milioi eurora (gastuaren % 24). Gainerakoa erakunde autonomoei eta sozietate publikoei dagokie: 1,1 milioi euro, guztira.


Modaren sektorera bideratutako 10 eurotik 7 foru-aldundiei dagozkie (335 mila euro), eta gainerakoa erakunde autonomoei eta sozietate publikoei dagokie (135 mila euro).

Arkitekturaren egindako gastuaren erdia baino gehiago (% 55) EAEko udalei dagokie. Zehazki udalek 16,8 milioi euro bideratu dituzte sektorera. Foru-aldundiak dituzte atzetik 10,5 milioi euroekin (% 34) eta Eusko Jaurlaritza ondoren 3,2 milioi euroekin (% 10).

Sormen-gastronomiaren sektorean gastuaren % 81 Eusko Jaurlaritzari dagokio (500 mila euro) eta gainerakoa, % 19, foru-aldundiei (119 mila euro).

KSlen zeharkako sektorean gastuaren % 68 Eusko Jaurlaritzari dagokio (1,2 milioi euro) eta % 32 foru-aldundiei (562 mila euro).

7. GRAFIKOA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua (%).



19. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua, administrazio-mailen arabera.

Sormen-sektorea		Eusko Jaurlaritzza	Foru-aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	10.373.868	3.238.819	17.746.979	44.686.947	76.046.613
	%	13,6	4,3	23,3	58,8	100,0
2. Bideo-jokoak	€	45.995	126.258	0	55.000	227.253
	%	20,2	55,6	0,0	24,2	100,0
3. Diseinua	€	708.385	318.152	418.060	240.475	1.685.072
	%	42,0	18,9	24,8	14,3	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	8.762.623	6.037.201	9.326.201	1.091.919	25.217.944
	%	34,7	23,9	37,0	4,3	100,0
5. Moda	€	0	335.020	0	134.588	469.608
	%	0,0	71,3	0,0	28,7	100,0
6. Arkitektura	€	3.155.778	10.497.829	16.837.862	8.274	30.499.744
	%	10,3	34,4	55,2	0,0	100,0
7. Sormen-gastronomia	€	500.000	118.750	0	0	618.750
	%	80,8	19,2	0,0	0,0	100,0
0. KSI sektorea	€	1.197.706	562.432	0	0	1.760.138
	%	68,0	32,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	€	24.744.356	21.234.460	44.329.102	46.217.205	136.525.122
	%	18,1	15,6	32,5	33,9	100,0

C.4 Gastu kontsolidatua izaera ekonomikoaren arabera

Sormen-sektoreetako likidatutako gastuaren kasuan ikusi den bezala, kapital-gastuaren eta aktibo eta pasibo finantzarioen gastuaren gainetik dago gastu arrunta sormen-sektore guztietan.

Gastuen kapituluaren arabera banaketa ekonomikoari dagokionez, transferentzia arruntak nabarmentzen dira beste kapitulu ekonomiko batzuen gainetik Hizkuntzaren sektorean, Bideo-jokoak, Moda eta Sormen-gastronomia sektoreetan eta KSlen zeharkako sektorean (transferentzien pisua % 64, % 100, % 80, % 81 eta % 59 da, hurrenez hurren).

Aipatzekoa da Hizkuntzen industriaren sektorean egoera aldatu egiten dela sormen-azpisektoreen arabera; horrela, Hizkuntzen irakaskuntzetan transferentzia arruntetako gastuaren pisua % 70 da, eta Itzulpengintzaren kasuan, aldiz, I. kapituluaren izandako langile-gastua nabarmentzen da, gastuaren % 62arekin.

Ondare eta zerbitzuetako gastu arruntak dira nagusi Diseinua eta Publizitatea eta marketina sektoreetan (% 78ko eta % 91ko portzentajeekin, hurrenez hurren).

Arkitektura sektorean I. kapituluak du pisurik handiena (gastuaren % 40), baina oso hurbilean du atzetik egiazko inbertsioen VI. kapituluak (gastuaren % 39).

20. TAULA. EAEko Administrazio publiko osoak sormen-sektore bakoitzera bideratutako gastu kontsolidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera.

Sormen-sektorea		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Egiazko inbertsioak	VII. kap. Kapital- transferentziak	VIII. kap. Finantza- aktiboak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	13.957.224	13.547.195	48.412.922	68.870	36.403	24.000	76.046.613
	%	18,4	17,8	63,7	0,1	0,0	0,0	100,0
- Itzulpengintza	€	3.627.307	2.218.455	53.075	0	0	0	5.898.837
	%	61,5	37,6	0,9	0,0	0,0	0,0	100,0
- Hizkuntzen irakaskuntza	€	10.329.917	10.777.672	48.314.847	68.870	6.403	24.000	69.521.708
	%	14,9	15,5	69,5	0,1	0,0	0,0	100,0
- Beste batzuk	€	0	551.068	45.000	0	30.000	0	626.068
	%	0,0	88,0	7,2	0,0	4,8	0,0	100,0
2. Bideo-jokoak	€	0	0	227.253	0	0	0	227.253
	%	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
3. Diseinua	€	9.850	1.315.901	308.270	51.051	0	0	1.685.072
	%	0,6	78,1	18,3	3,0	0,0	0,0	100,0

Sormen-sektorea		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Egiazko inbertsioak	VII. kap. Kapital- transferentziak	VIII. kap. Finantza- aktiboak	Guztira
4. Publizitatea eta marketina	€	184.383	22.820.052	2.181.526	31.984	0	0	25.217.944
	%	0,7	90,5	8,7	0,1	0,0	0,0	100,0
5. Moda	€	0	94.588	375.020	0	0	0	469.608
	%	0,0	20,1	79,9	0,0	0,0	0,0	100,0
6. Arkitektura	€	12.301.790	4.396.025	862.640	11.745.079	1.194.210	0	30.499.744
	%	40,3	14,4	2,8	38,5	3,9	0,0	100,0
7. Sormen- gastronomia	€	0	100.000	500.000	0	18.750	0	618.750
	%	0,0	16,2	80,8	0,0	3,0	0,0	100,0
0. KSI sektorea	€	0	453.472	1.083.866		222.800	0	1.760.138
	%	0,0	25,8	61,6	0,0	12,7	0,0	100,0
Guztira	€	26.453.247	42.727.232	53.951.497	11.896.984	1.472.163	24.000	136.525.122
	%	19,4	31,3	39,5	8,7	1,1	0,0	100,0

C.5 Sormen-sektoreetan kontsolidatutako gastua biztanleko

EAEko administrazio publikoaren biztanleko gastu kontsolidatua sormen-sektore guztietarako 62,1 euro da.

Hizkuntzen industriaren sektorean biztanleko kontsolidatutako gastua 34,6 eurora iristen da (diru-kopuru horretatik 31,6 euro Hizkuntzen irakaskuntzari eta 2,7 euro Itzulpengintzari dagozkio, hurrenez hurren).

Arkitekturara 13,9 euro bideratu dira biztanleko, eta Publizitateara eta marketinera zerbait gutxiago, 11,5 euro.

Gainerako sormen-sektoreetara bideratutako baliabideak biztanleko euro 1eko langatik behera daude.

21. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera bideratutako biztanleko gastu kontsolidatua.

Sormen-sektorea	€/ biztanle
1. Hizkuntzaren industriak	34,6
- Itzulpengintza	2,7
- Hizkuntzen irakaskuntza	31,6
- Beste batzuk	0,3
2. Bideo-jokoak	0,1
3. Diseinua	0,8
4. Publizitatea eta marketina	11,5
5. Moda	0,2
6. Arkitektura	13,9
7. Sormen-gastronomia	0,3
0. KSI sektorea	0,8
Guztira	62,1

Administrazio-mailaren arabera, udalak dira sektore horietara diru-kopururik handiena bideratu duen entitate mota, biztanleko 20,2 euroekin. Ondoren, Eusko Jaurlaritza dago, biztanleko 11,2 euroekin, eta foru-aldundiak ditu atzetik biztanleko 9,7 euroekin.

Udalak nabarmentzen dira gainerako administrazio-udalekiko Hizkuntzaren industriak eta Arkitektura sektoreetara bideratutako gastuaren arabera (8,1 euro biztanleko eta 7,7 euro biztanleko, hurrenez hurren).

Publizitatean eta marketinean biztanleko egindako gastua antzeko mailan dago udaletan eta Eusko Jaurlaritzan (4,2 euro biztanleko eta 4,0 euro biztanleko, hurrenez hurren).

22. TAULA. Sormen-sektore bakoitzera biztanleko bideratutako gastu kontsolidatua, administrazio-mailen arabera (€/biz).

Sormen-sektorea	Eusko Jauriaritza	Foru-aldundiak	Udalak
1. Hizkuntzaren industriak	4,7	1,5	8,1
2. Bideo-jokoak	0,0	0,1	0,0
3. Diseinua	0,3	0,1	0,2
4. Publizitatea eta marketina	4,0	2,7	4,2
5. Moda	0,0	0,2	0,0
6. Arkitektura	1,4	4,8	7,7
7. Sormen-gastronomia	0,2	0,1	0,0
0. KSI sektorea	0,5	0,3	0,0
Guztira	11,2	9,7	20,2



**DIRU-SARRERAK
SORMEN-SEKTOREETAN**

EAEko Administrazio publikoak sormen-sektoreetan lortutako diru-sarreraren guztizko zenbatekoa 51,4 milioi eurora iristen da. Diru-sarrera ia guztiak Hizkuntzen industriaren sektoreari dagozkie: 50,4 milioi euro. Arkitekturako sektoreko diru-sarrerak 632 mila eurora iristen dira; Diseinukoak 175 mila eurora, bideo-jokoetakoak 55 mila eurora, KSlen zeharkako sektoreetakoak 94 mila eurora, Modakoak 40 mila eurora eta azkenik Publizitate eta marketinekoak ia 3 mila eurora.

23. TAULA. Sormen-sektorearen arabeko diru-sarrerak.

Sormen-sektorea	Guztira	%
1. Hizkuntzaren industriak	50.413.264	98,1
2. Bideo-jokoak	55.000	0,1
3. Diseinua	175.000	0,3
4. Publizitatea eta marketina	2.592	0,0
5. Moda	40.000	0,1
6. Arkitektura	631.659	1,2
0. KSI sektorea	93.715	0,2
Guztira	51.411.230	100,0

Diru-sarrerak administrazio-mailen arabera aztertzen badira, erakunde autonomoek eta sozietate publikoek lortutako diru-sarrerak 46,8 milioi eurora iristen dira eta Hizkuntzen industriaren sektoreari dagozkie ia osorik (46,9 milioi euro, zehazki).

Udalen sektore horretarako diru-sarrerak 3,6 milioi eurora iristen dira eta Arkitekturan 205 mila euroko balioa duten diru-sarrerak lortu dira.

24. TAULA. Sormen-sektorearen eta administrazio-mailen arabeko diru-sarrerak (€).

Sormen-sektorea	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	11.882	0	3.596.934	46.804.448	50.413.264
2. Bideo-jokoak	0	0	0	55.000	55.000
3. Diseinua	0	0	5.000	170.000	175.000
4. Publizitatea eta marketina	0	0	2.592	0	2.592
5. Moda	0	0	0	40.000	40.000
6. Arkitektura	370.383	56.084	205.193	0	631.659
0. KSI sektorea	93.715	0	0	0	93.715
Guztira	475.980	56.084	3.809.719	47.069.448	51.411.230
%	0,9	0,1	7,4	91,6	100,0

Diru-sarreraren sailkapen ekonomikoari dagokionez, transferentzia arruntak dira nagusi Hizkuntzaren industriaren sektorean 43,2 milioi euroekin (sektoreko diru-sarreraren % 86). Tasengatiko eta prezio publikoengatiko diru-sarrerak 7,3 milioi eurora iristen dira (diru-sarreraren % 14).

Arkitekturaren sektorean diru-sarreraren bidez lortutako 10 eurotik 6 tasengatiko eta prezio publikoengatiko diru-sarreraren III. kapitulari dagozkio (370 mila euro) eta 10 eurotik ia 4 kapital-transferentziei dagozkie (241 mila euro).

25. TAULA. Sormen-sektorearen eta kapitulu ekonomikoaren arabeko diru-sarrerak.

Sormen-sektorea		III kap. Tasak, prezio publikoak eta diru-sarrerak	IV. kap. Transferentzia arruntak	VII. kap. Kapital- transferentziak	VIII. kap. Finantza-aktiboak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	€	7.251.474	43.150.231	11.308	250	50.413.264
	%	14,4	85,6	0,0	0,0	100,0
2. Bideo-jokoak	€	0	55.000	0	0	55.000
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
3. Diseinua	€	0	175.000	0	0	175.000
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	€	2.592	0	0	0	2.592
	%	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
5. Moda	€	0	40.000	0	0	40.000
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
6. Arkitektura	€	370.383	20.697	240.579	0	631.659
	%	58,6	3,3	38,1	0,0	100,0
0. KSI sektorea	€	0	93.715	0	0	93.715
	%	0,0	100,0	0,0	0,0	100,0
Guztira	€	7.624.449	43.534.643	251.888	250	51.411.230
	%	14,8	84,7	0,5	0,0	100,0

Lortutako datuetan oinarrituta kalkulatu da erakundearen autofinantzaketa-maila sormen-sektoreetako diru-sarrerei dagokienez. Adierazle hori kalkulatzeko sormen-sektoreetako diru-sarrera guztiak hartu dira kontuan.

Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak dira autofinantzaketa maila handiena duten entitate mota sormen-sektoreetako diru-sarrerei dagokienez. Erakunde horien finantzaketa-maila % 14an dago: izaera pribatuko diru-sarrera propioak 6,9 milioi eurora iristen dira.

Autofinantzaketa-mailak nabarmen egiten du behera gainerako administrazio-mailetan: udalen kasuen autofinantzaketa-maila % 0,99 da eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan % 0,59.

26. TAULA. Sormen-sektorearen eta udalen populazio-habitataren araberako diru-sarrerak (€).

Sormen-sektorea	Eusko Jaurlaritzatik datozen diru-sarrerak	Foru-aldundietatik datozen diru-sarrerak	Erakunde autonomoetatik eta erakunde publikoetatik datozen diru-sarrerak	Europatik datozen diru-sarrerak	Guztira diru-sarrera publikoak	Izaera pribatuko diru-sarrera propioak	Aurrekontu Guztiraa sormen-sektoreetan	Autofinantzaketa-maila (%)
Eusko Jaurlaritza	0	0	0	93.715	93.715	382.265	64.745.200	0,59
Foru-aldundiak	56.084	0	0	0	56.084	0	21.656.898	0,00
Udalak	29.843	157.438	3.182.425	0	3.369.707	440.012	44.329.102	0,99
Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	39.914.918	265.000	0	0	40.179.918	6.889.530	49.399.630	13,95
Guztira	40.000.845	422.438	3.182.425	93.715	43.699.423	7.711.807	180.130.830	4,28




**ENPLEGUA
SORMEN-SEKTOREETAN**

ER

Guztira, 501 lanpostu sortzen ditu sormen-sektoreak EAEko administrazio publikoan. Lanpostu horien erdia baino gehiago Hizkuntzaren industriaren sektoreari dagozkio: 73 lanpostu itzulpengintzari lotutako jardueretan eta 191 lanpostu euskararen irakaskuntzari lotuak. Arkitekturaren sektoreak sortutako enplegua 232 lanpostura iristen da.

8. GRAFIKOA. Sormen-sektorearen araberrako enplegua.



27. TAULA. Sormen-sektorearen eta -azpisektorearen araberrako enplegua.

Sormen-sektorea eta -azpisektorea	Lanpostuak	
	Kop.	%
1. Hizkuntzaren industriak	264,0	52,7
- Itzulpengintza	73,1	14,6
- Hizkuntzen irakaskuntza	191,0	38,1
3. Diseinua	0,5	0,1
4. Publizitatea eta marketina	4,5	0,9
6. Arkitektura	232,0	46,3
Guztira	501,0	100,0

Hizkuntzaren industriaren barruan 6 lanpostutik 10 EAEko udalei dagozkie. 160 lanpostu. Lanpostu horietatik 122 daude hizkuntzen irakaskuntzari lotuta eta 38 lanpostu daude itzulpengintzako jarduerari lotuta. Erakunde autonomoen eta sozietate publikoen enplegua 69 lanpostura iristen da (hizkuntzen irakaskuntzakoak guztiak) eta foru-aldundiena 36 lanpostura iristen da (itzulpengintzarekin lotutako enplegua).

Arkitekturaren sektoreko enpleguari dagokionez, sektoreko 232 lanpostuetatik 195 lanpostu udalei dagozkie eta 37 foru-aldundiei.

28. taula. Sormen-sektorearen eta administrazio-mailen arabeko enplegua.


		Foru-aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	Guztira
1. Hizkuntzaren industriak	Kop.	35,5	159,7	69,0	264,2
	%	13,4	60,4	26,1	100,0
- Itzulpengintza	Kop.	35,5	37,7	0,0	73,3
	%	48,5	51,5	0,0	100,0
- Hizkuntzen irakaskuntza	Kop.	0,0	122,0	69,0	191,0
	%	0,0	63,9	36,1	100,0
3. Diseinua	Kop.	0,0	0,5	0,0	0,5
	%	0,0	100,0	0,0	100,0
4. Publizitatea eta marketina	Kop.	0,0	4,5	0,0	4,5
	%	0,0	100,0	0,0	100,0
6. Arkitektura	Kop.	37,1	194,7	0,0	232,0
	%	16,0	83,9	0,0	100,0
Guztira	Kop.	72,7	359,3	69,0	501,0
	%	14,5	71,7	13,8	100,0

Generoaren araberako sormen-sektoreetako enpleguaren banaketari dagokionez, 10 lanpostutik 6 baino gehiago emakumeei dagozkie, 308 lanpostu termino absolututan.

Emakumeen proportzioa handixeagoa da Hizkuntzaren industriaren sektorean, 3 lanpostutik 2 emakumeei baitagozkie (173 lanpostu emakumeei dagozkien 264 lanpostutatik).


Arkitekturan, emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa bada ere, proportzioa zertxobait jaisten da proportzio globalarekiko: lanpostuen % 57 emakumeei dagokie (133 lanpostu 232tik).

9. GRAFIKOA. Generoaren eta sormen-sektorearen enplegua (%).



29. TAULA. Generoaren eta sormen-sektorearen araberako enplegua.

	1. Hizkuntzaren industriak		3. Diseinua		4. Publizitatea eta marketina		6. Arkitektura		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumea	173,3	65,6	0,0	0,0	1,9	42,9	132,5	57,1	307,6	61,4
Gizona	90,9	34,4	0,5	100,0	2,6	57,1	99,5	42,9	193,4	38,6
Guztira	264,2	100,0	0,5	100,0	4,5	100,0	232,0	100,0	501,0	100,0



Eranskinak



A. Azterlanean parte hartzen duten entitateen zerrenda

Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak

Gipuzkoa

99067	HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea
99016	CICC Tabakalera KGNZ
99023	Etxepare Euskal Institutua
99066	Donostia Sustapena - Fomento San Sebastián SA

Bizkaia

99068	BEAZ.
99069	Bilbao Ekintza
99070	SPRI SA

B. Sormen-sektoreen arabera likidatutako gastua (€)

Honako hauek dira proiektu honetan parte hartu duten erakunde autonomo eta sozietate publikoak:

Gipuzkoa


KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA (TABAKALERA)
 ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
 DONOSTIA SUSTAPENA - FOMENTO SAN SEBASTIÁN S.A.
 HABE - HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEA

Bizkaia

BEAZ SAU
 BILBAO EKINTZA
 SPRI SA

C. Datuen estrapolazioa


5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako 98 toki-administrazioeko lagineko datuak EAEko 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien unibertso osora estrapolatu dira (179 udalerrri guztira), honako prozesu honen bidez:




D. Aztertutako kontzeptuak

D.1.1. Gastuaren izaera ekonomikoa sormen-sektoreetan

2020ko sormen-sektoreetako gastu publikoari buruzko azterlan hau aurrekontu publikoen gastuaren egitura ekonomikoan oinarritu da. Egitura horri jarraikiz, honako kapitulu eta azpikapitulu hauetan banatu dira aurrekontu publikoak:




D.1.2. Gastuaren zertarakoa: sormen-sektoreen deskribapena



Goian adierazitako sormen-sektoreez gain, beste kategoria bat sortu da: KSlen zeharkako sektorea. Sormen-sektoreetakoren batean banakatu ezin izan diren aurrekontu-partidak barne hartu dira kategoria horretan, edo kultura- eta sormen-industriei lotutako partidak.

D.1.3. Sormen-sektoreetako diru-sarrerak



D.1.4. Enplegua sormen-sektoreetan

Sormen-sektoreei lotutako enplegu propioarekin lotutako informazioa bildu da, gizonen eta emakumeen artean bereiziz.

E. Gastuaren kontsolidazioa

2020ko likidatutako aurrekontuan oinarrituta lortu da azterlanak eskaintzen duen informazioa, aztertutako entitate publikoen aitortutako betebeharren dagokion fasean. Lehen informazio-maila horri gastu likidatua esaten zaio, eta azterlanaren unibertsoa osatzen duten entitateek sormen-sektoreei emandako gastu «gordinaren» berri izateko aukera eskaintzen du.

Informazio horretatik abiatuta, gastuaren kontsolidazioa gauzatu da. Arazketa-prozesu bat da, eta azterlanean parte hartutako entitateen arteko transferentzia ekonomikoen harira sortutako kontabilitate bikoitza neutralizatzen du (gastuen eta sarreraren IV. eta VII. kapituluak). Emaitza gisa, sormen-sektorean egindako gastu «garbiari» buruzko datuak eskaintzen ditu azterlanak.



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura